

UPV/EHUN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO
KONTRATAZIO DEIALDIA 2018:
III. MODALITATEA (TUTOREKIDETZA BORDELE)
Emandako eta ukatutako eskaeren behin-betiko
zerrenda

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) onespena lortu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak argitaratu zuen

UPV/EHUN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA 2018:
III. MODALITATEA (TUTOREKIDETZA BORDELE)

Eskaeren ebaluazio izapideak bukatu ondoren, IGBBk adostu zuen errektoreordetzaren webgunean argitaratzea onartutako eta ezetsitako eskaeren behin-behineko zerrenda.

Gero, izangaiek hamar eguneko epea izan zuten egokitzen jotzen zituzten alegazioak aurkezteko.

Izapide hori bukatu ondoren, ERABAKI DA errektoreordetzaren webgunean argitaratzea onartutako eta ezetsitako eskaeren behin betiko zerrenda.

KONTRATAZIORAKO DOKUMENTUAK AURKEZTEA:

Laguntza onartu duten onuradun guztiek **2019ko maitzaren 20a baino lehen** e-mail bidez bidali beharko dituzte rrhh-inves.dgi@ehu.eus helbidera honako dokumentu hauek PDF formatuan:

- a. Aurreko beken aitortpena
- b. Gizarte Segurantzako fitxa
- c. Lanean hasteari buruzko ziurtagiria
- d. Onuradunaren aitortpena
- e. Bi unibertsitateetako doktorego programetako matrikularen gordekina
- f. Doktorego programara sarbidea ematen du(t)en titulua(k) (gradua, masterra, lizentziatura).

Gero dokumentazio hori UPV/EHUko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dute.

Erabili beharreko ereduak errektoreordetzako webgunean daude eskuragarri ("Dokumentuak" izeneko erlaitza).

BEHIN BETIKO UKATUTAKO ESKAERAK:

Alegazioak aurkeztu eta behin betiko ukatu dituzten eskaeren kasuan, beren alegazioak gaitzetsi dituztela ulertu beharko dute eskatzaileek. Alegazioak aurkeztu zituzten hautagaiek erantzuna postaz jasoko dute, baita nor bere eskaeraren ebazpena ere.

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude haren kontra egiteko (aukerak bateraezinak dira):

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakiok erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua ezetsizat joa izan dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: 123 eta 124. artikulua; 29/1998 Legea, uztailearen 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailearen 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

OHAR GARRANTZITSUA:

Aurkeztutako eskaera kopurua kontuan hartuta, eta eskatzaile guztiei ahalik eta azkarren erantzuteko asmoz, kontsulta guztiak posta elektronikoko bidez egin daitezela eskatzen da, helbide honetara idatzita: rrhh-inves.dgi@ehu.eus . Mezuaren gaian hau jarri: "BORDELE 2018 deialdia".

Leioa, 2019ko maitzaren 6a.

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
IKERKETAREN GESTIOKO ZUZENDARITZA
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA

KODEA	NAN EDO PASAPORTEA	2. ETA 3. IRIZPIDEAK	4. IRIZPIDEA	1. IRIZPIDEA	PUNTUAZIOA GUZTIRA	BEHIN-BETIKO EBAZPENA
PIFBUR18/08	77216351S	36	5	17,82	58,82	EMANDAKOA
PIFBUR18/10	LR0572661	30	0	26,93	56,93	EMANDAKOA
PIFBUR18/07	130317202074	32	5	18,74	55,74	EMANDAKOA
PIFBUR18/04	080140200026	37	0	17,90	54,90	EMANDAKOA
PIFBUR18/06	45754529P	33	0	21,78	54,78	EMANDAKOA
PIFBUR18/02	72535275Z	34	0	20,54	54,54	UKATUTAKOA
PIFBUR18/03	45786620Z	21,7	8	24,22	53,92	UKATUTAKOA
PIFBUR18/01	76088905Y	32	5	12,59	49,59	UKATUTAKOA
PIFBUR18/09	16098012J	33	0	14,71	47,71	UKATUTAKOA
PIFBUR18/05	15CF20193	27,5	8	5,90	41,40	UKATUTAKOA